

MINTZALDI - EZTABAIDA

"Etxaldeeen segida: desafioak eta aterabideak"

2026ko maiatzaren 7a, osteguna, 20.30
Ainiza Monjoloseko herriko etxea

Dominique Latastekin, « Autrement dit » bulegoko psikosozialgoa eta gizarte zientzietako ikerlaria Montpellier 3 unibertsitatean.

Bere hitzaldi ziklo ibiltariaren baitan, etxaldeeen segida uztearekin jokoan dena aurkeztuko du bere ikerketa lanetatik abiatuz eta hainbat arazo nagusi azpimarratuz :

- **paradoxa kezkaigarri bat**: etxaldeeen desagertzea (etxaldeeen %15-en galtzea 2010 eta 2020 artean Euskal Herrian, % 21 Frantzia mailan) handitzearen faboreetan, laborari hautagai batzuk nekez plantatzen diren bitartean. Zergatik desoreka horrek segitzen du?
- **lurralde mailako ondorioak ez ikustea**, handitzeak tokiko dinamiketan dituen ondorioak ez batere ezagutzea (desertifikazioa, lurraldeen bizitasunaren galtzea...). Tokiko eragileak nola sentsibilizatu?
- **arrasta psikologikoak gaizki-estimatuak**: laborariak etxaldearen segida familiaz kanpoko bati uzteko gaizki prestatuak dira usu eta, ondorioz, transmisioa haustura bezala bizitzen dute. Nola jokatu bere mailan? Alor profesionallean? Lurralde mailan? Jendearekin?

Gaualdia **publiko zabalari idekia** da. Etxaldeeen segidaren gaiak interesatzen dituen pertsona guzietarako idekia da, partikulazki erretretatik hurbiltzen diren laborarieri, laborantzan plantatu nahi duten gazteeri (laborantza mundukoak izan edo ez), hautetsieri, bere lurraldearen geroari interesatzen den edozoin pertsonari.

Eztabaida denboran agertuko diren ideiak bilduak izanen dira. Eragile publiko eta profesionaleri eginen diren gomendioak elikatuko dituzte eta ekintzak proposatuko dira frantses ministerioari, etxaldeak bizirik atxikitzeko.



Badu hainbat urte Dominique Latastek Euskal Herriko Laborantza Ganbarak antolatzen duen "Erretreta eta etxaldearen segida prestatu" formakuntza zikloan parte hartzen duela.

Maiatzaren 7 honetan, Dominique Latastek hitzaldi ziklo ibiltaria abiatzen du Ainiza Monjolosen. **Bizikletaz ibiliko da hitzaldiz, hitzaldi etxaldeeen segida uztearen krisia jakinarazteko eta ekintza konkretuak asmatzeko.** Ekainean Parisera heltzeko xedea du.

Proiektu hau bere ikerketa lanetatik eta jadanik antolatuak dituen hamar bat hitzaldietatik sortu da. Tokiko eragileen elkartzea du xede (laborariak, hautetsiak, herritarrak) eta gogoetak frantses laborantza eta elikadura subiranotasunaren ministeritzaraino helaraztea, Parisen.